




Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

'OIHU ANIZKOITZA', ESKLEROSIA GILTZAPEAN

Esklerosi anizkoitza du Ibon Fernandez Iradi preso lasartearrak. Aske geratzeko eskaerak behin baino gehiagotan errepi-katu badira ere, egun oraindik Estatu frantseseko epaitegien esku dago azken erabakia. Eta ebazpena ez da hurrengo urteko martxoa baino lehen iritsiko. Gaixotasunak giharrak geldia-razi moduan gogortu ditu ere senideen egunerokoak Fernan-dez Iradik jasaten duen egoerak. 'Oihu anizkoitza' dokumentalak azalera eraman du urteetan atzera eginda Lan-nemezanen preso dagoen euskal herritar honen auzia. Seni-deen lekukotzak, Jaiki Hadiko medikuen iritziak, adituen azal-penak, abokatuen ikuspegiak eta Luisiren testigantzak dira, besteak beste, «Ibon maite dugunok»

egin duten ordu erdiko dokumentalaren bizkarrezurra. Luisik merezi du aurkezpen berezia. Lasarte-ar emakumea, esklerosi anizkoitza du berak ere. Agian, bere ispilutik begira asma dezake ikusleak Ibon Fernandez Iradiren osasunak egoera horretan izan dezakeen beharrezkoa; medikuen asisten-tziaren beharrezkotasuna; edo gaixoaren inguruak duen berebiziko garrantzia. Gertukoenek era-kusten dute, azken batean, jazo denaren eta gerta daitekeenaren ikuspuntua. Ariane KAMIO